

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

**11091** *5/2017 Legea, irailaren 29koa, Estatuaren titulartasuneko irradi eta telebistaren ekainaren 5eko 17/2006 Legea aldatzen duena, RTVE Korporazioaren independentzia eta haren organoetako hautaketa parlamentarioan aniztasuna berreskuratzeko.*

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege hau onetsi dutela eta nik berretsi egiten dudala.

#### HITZAURREA

Konstituzioaren 20.3 artikulua arabera, legeak arautuko ditu estatuaren nahiz bestelako erakunde publikoen mendeko komunikabide sozialen antolakuntza eta kontrol parlamentarioa, eta adierazgarri diren gizarte-talde eta talde politikoei bermatuko die haietan parte hartzea, Espainiako gizarte-aniztasuna eta hizkuntzak errespetatuz.

Konstituzioaren mandatu horiek betetzen direla bermatzeko, Estatuaren Titulartasuneko Komunikabideen Erreformatarako Kontseilua eratu zen 2004an. Gai horretan ospea duten hainbat lagunek osatu zuten kontseilua, eta denen artean txosten bat idatz zezatela agindu zitzairen, non jaso behar baitzituzten artikulazio juridiko onenari, programazioko eduki aproposenei eta finantzaketa egokienari buruzko proposamenak.

Gomendioaren helburu nagusia zera zen: arau-esparru bat ezartzea, galarazteko gobernuak estatuaren titulartasuneko komunikabideen gainean kontrola izatea. Hartara, komunikabideek profesionaltasunez eta independentziaz egin ahal izango dute gizarte demokratiko aurreratuetan dagokien lana, eta, ondorioz, informazioa benetakoa dela, iritzi-askatasuna dagoela, kultura-aniztasuna zabaltzen dela eta herritarrek politikan parte hartzen dutela bermatuko da.

Estatuaren Titulartasuneko Irrati eta Telebistaren ekainaren 5eko 17/2006 Legean, Kontseiluaren txosteneko proposamenak onartu eta jaso ziren, eta xedatu zen beharrezkoa zela erreforma bat egitea, neutraltasun-, gardentasun- eta kalitate-eskakizunak areagotzeko. Horrez gain, estatuaren irradi-telebistak, titulartasun publikokoa ez ezik, zerbitzu publiko izaten jarraitu behar zuela berretsi zuen legeak, eta RTVE Korporazioa sortu zuen, autonomia bereziko estatuko merkataritza-sozietate gisa. Funtsean, sozietate anonimoen legeriari lotuta dago korporazioa, eta haren kapital soziala estatuarena da osoz.

Legeak esandakoaren arabera eta korporazioaren independentzia indartu eta bermatzeko, Parlamentuak hautatzen ditu, bi herenen gehiengoarekin, korporazioaren administrazio- eta gobernu-organoko kideak. Nolanahi ere, estatuko ordezkariak handieneko sindikatuei dagokie bi kontseilariren proposamena egitea. Erabaki hori bat dator gure gobernu-sistemaren dinamikari sakonki lotuta dagoen logika konstituzionalarekin. Kontuan hartuta oraintsuko historia konstituzionalean denetariko gobernuak izan direla —gehiengo osoa eta gehiengo soila izan dutenak ganberetan— eta RTVE Korporazioak garrantzi politiko eta sozial handia duela, 17/2006 Legearen helburua zen oposizioak beti hautaketan parte hartuko zuela bermatzea. Horregatik, lege hori izan da RTVE Korporazioaren funtzionamendurako egitura-printzipioa eta irradi eta telebista publikoaren eredu ezartzeko oinarrietako bat —eredu independentea, plurala, bideragarria eta kalitatezkoa—.

**Artikulu bakarra.** *Estatuaren Titulartasuneko Irrati eta Telebistaren ekainaren 5eko 17/2006 Legea aldatzea.*

Estatuaren Titulartasuneko Irrati eta Telebistaren ekainaren 5eko 17/2006 Legearen artikulu hauek aldatzen dira:

Bat. 10. artikulua 1. zenbakia honela geratzen da idatzita:

«1. RTVE Korporazioaren Administrazio Kontseiluak hamar kide izango ditu; guztiak ere, trebakuntza eta esperientzia profesional zabaleko pertsonak. Administrazio Kontseiluaren osieran, emakumeen eta gizonen presentzia orekatuaren printzipioa beteko da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorriz.»

Bi. 11. artikulua honela geratzen da idatzita:

«11. artikulua. *Hautaketa.*

1. Gorte Nagusiek hautatuko dituzte Administrazio Kontseiluko kideak; zehazki, Diputatuen Kongresuak sei kide aukeratuko ditu, eta Senatuak lau.

2. (Ezabatua).

3. Proposatutako izangaiek, erregelamenduan erabakitzen den moduan, alde zurretik Kongresuan eta Senatuan entzunaldi publikoa izango dute, bi ganbera horiek kargurako egokiak diren erabaki ahal izan dezaten. Aukeratuak izateko, dagokion ganberaren bi herenen gehiengoa beharko dute.

4. Diputatuen Kongresuak, hautatutako hamar kontseilarietatik, RTVE Korporazioko eta Kontseiluko presidente izango dena izendatuko du. Berau izendatzeko, ganberaren bi herenen gehiengoa beharko da.

5. Ezin izango dute RTVE Korporazioaren Administrazio Kontseiluko kide izan lege honen 13. artikuluko kasuetako batean egoteagatik kargua utzi duten pertsonak.»

Hiru. 12. artikulua 2. zenbakia honela geratzen da idatzita:

«2. Administrazio Kontseiluko kideren batek, agintaldian zehar, kargua uzten badu, gelditzen zitzaion aldirako izendatuko da haren ordezkoa. Ganberak parlamentuko taldeen proposamenari jarraikiz bete beharko dituzte hutsik gelditu diren postuak.»

Lau. 43. artikulua gehitzen da; hona testua:

«43. artikulua. *Gardentasuna eta herritarren arreta.*

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean agertzen diren betebeharrak bete behar ditu Radio Televisión Española Korporazioak.»

**Lehenengo xedapen iragankorra.**

RTVE Korporazioaren Administrazio Kontseiluko kideen kopuruaren osaera lege honetan xedatutakora egokitzeko xedez, bigarren xedapen iragankorrean ezarritako epearen barruan eta dagokion araudia onartutakoan, lehenik eta behin izangaiek hautatuko dira eta, gero, Administrazio Kontseilu berria eta RTVE Korporazioko eta Kontseiluko presidente berria.

Ez bada lortzen kargudun berriak bi herenen gehiengoz hautatzea lehenengo bozketan, gehiengo osoz aukera daitezke beste bozketan batean —zeina gutxienez hamabost egun igaro ondoren egingo baita—, baina, horretarako, pertsona horien hautagaitza dagokion ganberako parlamentuko taldeen erdiak proposatu behar izan du, gutxienez.

**Bigarren xedapen iragankorra.**

1. Gorte Nagusiek hiru hilabeteko epea izango dute, lege hau indarrean jartzen denetik, RTVE Korporazioaren Administrazio Kontseiluko kideak eta presidentea hautatzeko araudia onartzeko; hautaketa lehiaketa publiko bidez egingo da, parlamentuko taldeek izendatutako adituen komite baten parte-hartzearekin. Komite horrek aditzera emango ditu bere ebaluazio-txostenak eta batzorde eskudunari helaraziko dizkio, izangaiei entzunaldia emateko.

2. Harik eta aurreko zenbakian adierazitako araudia onartu arte, Estatuaren Titulartasuneko Irrati eta Telebistaren ekainaren 5eko 17/2006 Legearen 11. artikuluan xedatutako hautaketa eta agerraldiak indarreko prozeduraren arabera egingo dira.

**Hirugarren xedapen iragankorra.**

Estatuaren Titulartasuneko Irrati eta Telebistaren ekainaren 5eko 17/2006 Legearen 12. artikuluan 1. zenbakian jasotakoa ezertan eragotzi gabe, eta bakar-bakarrik prozedura berriaren arabera egingo den lehenengo hautaketari begira, kontseilariek beren kargua berri dezaizkete.

**Azken xedapen bakarra.** *Indarrean jartzea.*

Lege hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Horrenbestez,  
Lege hau bete eta betearaz dezatela agintzen diet espainiar guztiei, partikular zein agintariei.

Madrilén, 2017ko irailaren 29an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,  
MARIANO RAJOY BREY